

Gure proiektuak arrakasta izan dezan baliabiderik garrantzitsuena garraioa izango da. Garraiorik gabe ezin izango dugu gure proiektua aurrera atera, lehenik eta behin beste enpresa batzuekin batera, trenak, autobusak... beharko ditugulako. Ondoren, garraioak moldatu beharko ditugu bidaiak eta zerbitzuak lotu egin beharko ditugu gure irizpideetara, egokitasuna zaiznduz, zerbitzu inklusiboak gehituz..., eta azkenik, zerbitzuak lotu beharko ditugu. Hau da, bidaiak nondik norakoak izango diren, trenen zein autobusen ordutegiak lotu beharko ditugu, eta langileak ere antolatu egin beharko ditugu.